

Apostasia

A

postasia “edo *nola frogatu Jainkorik badela*”. Iruñeko *gay pride* ez harrotuegiaren ondoko festan lagun batek apostasiaren aldeko pegatina eman dit. Papatzean paratu dut. Irailean kanpaina bat abiaraziko omen dute, Iruñean, fede katolikolari uko ofiziala ematen dion agiria eskuratzeko. Tristatu nau garaioetako histasunak; ez dut Juliano enperadorea bikarioaren idazkari aurrean irudikatzen, “ilaran jarrita”, fedegabetasuna aitortu ziezaioten. Hala ere, oso litekeena da, beste egitekorik ez dudan goiz batean, bihotz harturik eta karpetatxo urdin bat besapean, apostatatzerara abia nadila.

Ez omen da lortzen erraza. Beste lagun bat ahalegindu zen eta apezpikutegian haren arrazoiak ezagutu nahi zituzten: apaizak aitorrarazi nahi zion homosexuala zelako hala egiten zuela. Berak ezetz, eta apaizak baietz eta baietz, lotsarik ez izateko, berari lasai esaten ahal ziola. Hirutan gauza bera galdetzeari ekin zion, azkenean ez dakit zer asmorekin ere.

Egoera berdinean zalantzak ditut nik nola jokatu nukeen. Nekezia sortzen dit apaizaren eta nire arteko elkarrizketa irudikatzeak berak. Gainera, behin *gay* naizela aitortuta, zer beste tranpatan eroarazi nahiko ninduke *finexxa* vatikanoarrak? Denetarik espero dezaket, baita Jainkoaren existentzia frogatzen saia daitezela ere. Baina ia-ia seguru nago ez dutela bide horretatik joko. Frogabide ontologikoak aspaldi alde batera utzita daude.

Mistikak irekitako bidea da.

“Zenbatenez gutxiago entenditzen dudan, firmeago sinesten dut”, dio Santa Teresak.

Senera, alde irrazionalera, larruazalaren bidezko ezagumenera jotzen du horrek. Propagandako iragarkiek



JOSU SANTESTEBAN

gauza bera egiten dute, ez gaituzte konbentzitu nahi, sentsazio bat helarazi baizik. Literaturan ere: poesiari buruzko bi orduko hitzalditik poesia atzo goizean asmatu zelako inpresioa (eta asmakuntzan delako hizlariak parte handia hartu zuelakoa) eraman dezakezu, ez baitu beste egilerik, ez tradiziozko ez ezer aipatuko, literatura osoa haren onberatasunetik (edo errebelatit) paperera gainezka egindako isurkia balitz bezala.

Horregatik, agian, nik Jainkoari buruzko frogabideak maite ditut, Izaki Goren baten gaineko nire sentipenak guztiz hutsalak direlako, eta, batez ere, orokortu ezinak. Tomas Akinokoaren, Leibniz-en eta abarren frogapenek, noski, ez naute sinestun egingo, eta Sébastien Faure anarkistak bildu zituen Jainkoa existitzen ez dela frogatzeko hamabi moduek ere ez naute sinesgabekotako, jendaurrean ateoia izateko arrazoia Faure-ren lehenengo argudioan

luzaro oinarritu dudan arren. Alde bateko eta besteko argudioak gordetzen ditut karpeta urdin batean eta guztiak iruditzen zaizkit ederrak. Umberto Ecoen bitxikeria bat, esaterako, *An Deus sit* izeneko hitzaldi bat, Jainkoaren existentzia Gramatika Sortzailearen bitartez frogaturik.

Apostasia eskatzera joango natzaioolarik, apaizaren aurrean aterako dut aspaldian paperezko zapi batean jasorik dudan argudio hau:

“Agnostiko ziniko batek (nik neuk) Jainkoaren existentziaren alde eta kontra argudia badezake lasai asko, logikak eskatzen du

Naturari eta Jende Zintzoari higuin zaion egoera (fribolo) hau ebatzi dadila, bata ala bestea hautatuta, bi aukeran aldiberekotasuna ezinezkoa delarik. Sexuan bezala gertatu ohi da, batzuek pottotta, bestetuek pitilina. Edo informatika binarioan, 0 ala 1. Konfliktu sortutakoan, genero artean bezala logika bikoitien ere, faloa (1) gehi alua (0) berdina faloa (1). Ergo, Faloa bada, hots, Jainkoa bada, hots Aberria bada...

Horregatik, bikario jauna, behar dut apostasia agiri hau”. ■

LaGUN bat ahalegindu zen apostatatzen eta apezpikutegian haren arrazoiak ezagutu nahi zituzten: apaizak aitorrarazi nahi zion homosexuala zelako hala egiten zuela. Berak ezetz, eta apaizak baietz eta baietz, lotsarik ez izateko, berari lasai esaten ahal ziola

irudiak:

Antton Olariaga